

26-27

Igualada Montserrat

27 Kms

Pertsonak zaintzeko hobe dira santutasun apur bat eta gorputzeko osasun ona, santutasun handia eta gorputzeko osasun kaskarra baino.

Etapas 26

Harrera-Tokiak

Datu Interesgarriak

Ignazioaren arrastoak

Autobiografia

Iruizkinak

Etapas 26

Igualadatik irtengo gara Santa Maria elizatik abiatuta. Santa Maria del Roser kalea hartuko dugu Udaletxeko Plazatik eta Elizatik abiatuz. La Soledad kaletik jarraituko dugu, dena zuzen jarraituz, lehenbizi Avinguda de Caresmar izango da eta gero, ezkerrerako angelu txiki batean Avinguda de Montserrat. Igualada - Bartzelona trenbidea gainetik igaroko dugu. Behera jarraituko dugu Montserrat Etorbidea jarraituz, eta eskuinera dagoen lehen errepidea hartuko dugu. Biribilgune handi batera eramango gaitu, gurutzatu eta zuzen jarraitzeko. Jatetxe handi bat utziko dugu leku garai batean, gure eskuinera. N-II errepidea jarraituko dugu, hain ezaguna zaigun. Errege Bidea da.

Gure aurrean 2 km-ko ibilbidea dugu industrialde batean zehar. Bi biribilgune igaroko ditugu eta hirugarrengoan ezkerrera hartuko dugu, gure ezkerrera ateratzen den lehen errepidetik, errepide nazionaletik pixka bat urrunduz, errepideko ibilgailuen endredorik gabe. Poste adierazle batek adieraziko digu Montserraterako norabidea.

Beti zuzen, errepide asfaltatutik, A-2 autobide azpitik pasako gara, eskuinera

duguna. Zubi batera iritsiko gara eta berriro gurutzatuko dugu A-2 autobidea, orain gainetik. Zubiaren bestaldean, ezkerrera biratuko dugu bide asfaltatutik. Biribilgune batera iritsiko gara, zuzen gurutzatuko dugu eta bide asfaltatutik jarraituko dugu. Eskuinera dugun bide asfaltatua hartuko dugu, A-2 autobidean sartu beharrik ez izateko. Can Alzinan sartuko gara. Poste adierazle batek lagunduko digu horretan.

Beti zuzen jarraituz, A-2 autobidearen paralelo doan errepide beretik, Castelloli herrira ari gara hurbiltzen. Herrian sartuko gara eta errepide bera jarraituz igaroko dugu, beti aurrera. Herritik irten eta zuzen jarraituko dugu. Ezkerrera egindako bihurgune baten ondoren, errepidea A-2 gaineko zubi batera iristen dela ikusiko dugu. Ez dugu zubia hartuko eta eskuinera dugun pistatik jarraituko dugu, A-2 autobidearen paraleloan. 600 m-ra A-2 gaineko zubia hartu beharko dugu: bertara igo gaitezke, zubia baino pixka bat lehenago ezkerrera dagoen bidezidorra hartzen badugu, zubiko errepidera eramango gaitu. Poste batek behar bezala adieraziko digu bidea.

A-2 autobidea gurutzatu eta Can Massanako gainera eramango gaituen errepidean gaude. Santiago Bidearen gezi horiak eta poste adierazleak ditugu bidelagun. Goranzko bidea dena errepidez egin dezakegu Can Massanaraino. "Oinez" doazenentzat, badaude igoerako bihurguneak laburtzen dituzten bidezidorrak. Lehen bihurgune itxia eskuinera igarota, 100 m-ra, bidezidor bat dugu ezkerrera, asfaltotik urrundu eta basoan barneratuko gaituena. Poste adierazle batek erakutsiko digu bidea eta gorantz jarraituko dugu.

Berriro errepidera iritsiko gara. Hura gurutzatu eta bidezidorretik jarraituko dugu. Berriro errepidera iritsiko gara, gurutzatu eta gorantz jarraitzen duen bidezidorra bilatuko dugu ezkerrera. Pista zabala da, Montserrat Parc urbanizaziora hurbilduko gaitu. Errepidearen bidegurutzetik 500 m-ra, pista utzi eta urbanizazioko lehen etxeetara eramango gaituen bidezidorra hartuko dugu.

Kale asfaltatura iritsiko gara: Castelloli kalea. 100 m-ra, gure ezkerrera hartuko dugu Verge de Montserrat etorbidetik. Handik berehala eskuinera biratzen hasiko da, bihurgune samur batean. Urbanizazioaren ertzetik doan Etorbide berean jarraituko dugu. Beti aurrera, ondoko beste kalerik hartu gabe. Urbanizazioaren amaierara iritsiko gara, eta han bidegurutzea: gure aurrean dagoena hartuko dugu eta Sant Pau de la Guardiola iritsiko gara.

Herria igaro eta bi bidetan bereizten den asfaltatu gabeko pista batetik irtengo gara. Pista zabaletik jarraituko dugu. Ezkerrera dugun Sant Pau hilerriaren aurretik pasako gara. Pistan, gora jarraituko dugu, une batzuetan pixka bat galdu ere egiten dena. Errepidera eta Can Massana gainera hurbiltzen ari gara. Azkenik geure bidezidorretik ikusiko dugu, errepidearen gainetik agertuko zaigu: igoera gogorra izan da!

Errepidera jaitsi eta gure ezkerrera hartuko dugu Can Massanako bidegurutzera arte. Errepide horretatik jarraituko dugu beti Montserraterako norabidean (erromesentzat ez da inondik eta inora ere gomendagarria mendeko bidexkak hartzea).

Helmugatik oso kilometro gutxira, Santa Cecilia ermita (XI. mendekoa) ikusiko dugu, eta Monasteriora eta Montserrateko Amabirjinarengana jarraitzeko adorea emango digu. 2 km aurrerago, “Cami dels Degotalls” kartelak, eskuinean, monasteriorako bidea adieraziko digu. Oinezko erromesentzat oso gomendagarria da bide horretan gora joatea, azken ahalegina arinduko baitigu.

Azkenik Montserrateko hirigunera helduko gara. Plazaraino igoko gara, Monasterioaren aurrean hain zuzen: erromesen zerbitzua plazan dago, gure ezkerrera.

Harrera-Tokiak

CASTELLOÍ

Ayuntamiento . Tel: 938 084 000. Han inaugurado un refugio nuevo.

Taxi Castellolí . 686 229 384

IGUALADA

Taxis Igualada . Tel: 609 478 219

MONTSERRAT

Hotel Abad Cisneros*** . Tel: 938 777 701

Refugio del Monasterio para peregrinos . En el Centre de Coordinació Pastoral. Tel 938 777 766 (hay que llegar antes de las 17:30). Información del Monasterio. Tel: 938 777 765.

Taxi Marcel . 607 329 946

SANT PAU DE LA GUARDIA

El Celler de la Guàrdia . Hostal - refugio - restaurante. Tel: 937 710 323.

Datu Interesgarriak

Etapaz zaila izan da: Beneditarren Monasteriora eta Montserrateko Amabirjinaren Basilikara dagoen 450 m-ko desnibela igotzea ez da pasiera samur bat. Baina igoerako ahalegina ongi saritua gelditzen da Montserrat mendiaren edertasunarekin eta ignaziotar familiarentzat hain leku sinbolikoa den horretara iristearen pozagatik. Bizikletan doazenek, ez dute Montserrat mendiko bidezidorra hartuko, errepidea baizik Can Massanatik aurrera, jaitsiera zoragarria baita neurri handi batean Benediktarren Monasteriora.

CASTELLOLI: Herri txikia. Bere izena X. mendeko Auli Gazteluaren hondakinengatik hartu du. Jatetxea, supermerkatua, botika, osasun-etxea eta bankua eskaintzen ditu.

SANT PAU DE LA GUARDIA: Urbanizazio honek ez du zerbitzurik eskaintzen.

MONTSERRAT: Mendi hau oso leku zoragarria gertatzen da, bere izenak oso ongi jasotzen duen bezala: "Mont serrat" zerra tankerako mendia. Leku honen historia zehatza, hain garbi ez badago ere, badirudi IX. Mendean, kaperak, jada leku honetan eraiki zirela (San Aciscoloren kapera, monasterioko lorategian, garai honetako hondakinak ditu).

XI. mendean sortutako beneditarren monasterioa, Montserrat mendian erne zen, gure ibilaldian ikusi ditugun mendiko loreak sortzen diren bezala. Beneditar komunitatearen bizitasuna, beren liturgietan (Monasterioko Eukaristia, 11:00etan) eta Kataluniako espektro soziopolitiko osoan ikus dezakegu beren presentziaren isla. Beren presentzia eta Montserrateko Amabirjina izan dira sinesmenaren eta erromesen arretaren erreferente mendeetan zehar. Amabirjinaren aurrean, eskerrak ematen dizkiogu Jainkoari orain arte egindako Bide osoarengatik, eta laguntza eskatuko diogu, Manresara, Ignazioaren azken hirira, eramango gaituen azken etaparako.

Tradizioak dioenez, Amabirjina Beltzaren estatua ospetsua San Lukas ebanjelariak tailatua izan omen zen, Kristok ondoko I. mendean eta zenbait

denboraz Koba Santuan musulmanei ezkutatua eduki omen zuten. Historialarien ustez estatua hau XII. mendekoa da. Monasterioari eta bereziki estatuari zuzendu zaizkio erromesak mendeetan eta mirarizko sendaketa ugari egotzi ere bai (Montserratek zenbait urtetan bi milioi biztanletik gora ere izan ditu). 1592an sagaratu zuten basilika nagusia, gero eta handiagoa zen erromesen uholdeari erantzuteko, ia erabat hondatuta gelditu baitzen Napoleonen erasoaldiaren (1811) ondoren, eta berriro eraikia izan zen 1850eko hamarkadatik aurrera.

Amabirjina Beltza ez dago egur beltzean tailatua, baizik eskaintza gisa ipinitako argizari kearen ondorioz da bere kolore beltza, estatuak duen bernizarekin batera eratu baitu kolore hori urteen joanean.

Jaitsierako bide luzeak eramaten du Cova Santara (Koba Santura), Amabirjina Beltza aurkitu omen zuteneko leku tradizionalera. Haitzuloa XVII. mendean eraiki zuten eta gurutze formako oinarria du. Funikular bat ere har dezakegu, eta haitzuloaren erdibidean utziko gaitu. Mendiko zenbait bidezidorretatik dauden ikusmirak ikusgarriak dira, nahiz eta Loiolatik bertara bide osoa egin duten erromesak barkatuak senti daitezkeen, ikusmira eder batengatik mendi horien aldapak igotzeko gogorik ez badute.

bildumak erretaula gotikoak eta Greco, Monet eta Picassoren obrak eskaintzen ditu. Espai Audiovisual horrek monjeen bizitza eta espiritualtasuna ilustratzen ditu erakusketa multimedien bidez.

Basilikaren fatxada nagusia 1968ekoa da, Kristori eta 12 apostoluei eskainia. Basilikaren barruan, oharrak jarraitu “Cambril de la Mare de Deu” lekura Ama Beltzaren santutegia bisitatzera iritsi arte. Basilika sarrerako patioaren bestaldean, areto bat dago Amabirjinaren zinopari eta grazien mezuak erakusten direna, Amabirjinagandik jasotako eta berari egosten zaizkion faboreen lekuko.

Gune horrek jatetxeak, supermerkatuak, botikak, osasun-etxea, bankua eta informazio-bulegoa eskaintzen ditu (Tel: 938 777 777).

Ignazioaren arrastoak

Oharrak: Alaitasuna dugu bidelagun. Ez dezagun ahaztu “sarrerako otoitza” eta amaierako elkarrizketa otoitzaren amaieran eta egunean zehar. Eta bizi dezagun Kristo Berpiztuaren poza! Ongi etorri argia, loreak, ura eta adiskideak! Gaurko ignaziar pistak ere Ignaziok bezala egitera garamatza: egin dezagun otoitz

berezia une batez Montserrateko Ama Birjinaren ondoan.

Esperia: Jainkoari eskatuko diot Kristo Berpiztuarekin poztu nadila, orain mundura igorri bainau bere misioa zerbitzatzera. Espiritua hartzeko erregutuko dut, gizateria adiskidetu eta bizia emateko bere zereginean lagun egin ahal izateko Jesusi.

Hausnarketak: Jaunaren Espirituak jaso dugun misioa baieztatzen digu. Are gehiago, Espirituak berak egiten digu lagun eta aurkitzen ditugun zailtasunetan indartzen gaitu. Beste asteetako dinamikarekin jarraitzen dugu: egiazko Erregeak berari lagun egiteko eskatzen digu gizakia suntsitzen ari den absurduari ongia gailentzeko lanean, Berri Ona hots eginez. Espirituak bultzatzen gaitu gure lurreko erronesaldian, Berri Ona hots eginaz.

Espirituak oztopoak gainditzen ditu, bideak ireki. Espirituak anaitasuna sortzen du, elkarte, gizatasuna, Jainkoaren irudia sortzen du munduan. Espirituak esnatu egiten gaitu, argitu, gure gorritik eta itsutasunetik ateratzen gaitu. Espirituak abian jartzen gaitu, bultza egiten gaitu eta ez digu denbora luzez eserita egoten uzten. Espirituak akuilatu egiten gaitu, gure erosotasunetik botatzen gaitu, ongi egindako gure eskemak apurtzen dizkigu. Espirituak errukiz, maitasunez eta emateko beharrez betetzen gaitu. Espirituak gora jasotzen gaitu, amets eginarazten digu, amaigabeko egiten gaitu. Espirituarengan dena itxaron dezakegu, dena jasan dezakegu, dena egin dezakegu. Gure bizitzan Jainkoaren Presentzia handia da Espiritua.

Gure erronesaldian Espiritua “arnastu” dugu. Gaur guran daukagun presentzia horretaz ohartzea eskatuko dugu. Non aurkitzen dut Espiritua nigan? Eta besteengan? Non ikusten dut Espirituaren ekintza munduan?

Gogoan izan eskaria azpimarratzea.

Testuak:

Joan 16,5-15. Jesusek Espiritu Santuaren ekintzez esandako hitzak gogoratuko ditut.

Eginak 2,1-21. Espirituaren etorrerako promesa Mendekoste egunean betetzen da.

Eginak 10,44-48. Pedro hitz egiten ari zela, Espiritu Santua jaitsi zen entzuten ari

ziren denen gainera. Ebanjelizazio lana hasi zen. Lan hau irmo egiteko erregutuko dut.

Lukas 4:14-20. Jesus Galileara itzuli zen, Espirituaren indarrez jantzita. Ni etxera itzultzeko garaia iristen ari denez, Espirituaren indarrez jantzi nadila erregutuko dut. Bere Espiritua behar dut Jainkoaren Erreinuko misioa betetzeko.

Amaierako elkarrizketa: gure barne erromesaldiko etapa honetan gure lagun eta adiskide Jesukristorekin ibiltzen ohitu gara eta adiskideek elkarrekin hitz egiten duten adinako askatasunez hitz egiten dugu elkarrekin. Amaitzeko, “Aita Gurea” esan.

Autobiografia

Manresaera hurbildu ahala, Loiolako Ignazioarentzat eta bere garaiko erromesentzat berezia izan zen leku batera iritsiko gara. Montserrat mendia, presentzia espiritual handiko lekutzat aitortzen du jende askok. “Mendi magikoa” ere deitu izan dio zenbaitek, Espirituaren presentzia bertan “naturala” den gune gisa gogoratzen du tradizioak. Utz gaitezen bulkada espiritual horrek eramaten, eta egin dezagun Ignaziok bezala: aurkez gaitezen Amabirjina Beltzaranaren aurrean, Jesusi jarraitzeko gure eskaintza eginez, haren zerbitzu handiagorako, eta bihotz askatasun handiz.

«Eta Montserraterako bere bidea, ohi bezala, Jainkoaren maitasunagatik egingo zituen balentrietan pentsatzen eman zuen. Eta bere adimen osoa gauza haiez beterik zuenez, Amadis de Gaula eta antzeko liburuen eraginez, haien antzeko gauzak etortzen zitzaizkion pentsamendura; eta hala erabaki zuen gau oso batez arma beila egitea, eseri gabe eta etzan gabe, eta tarteka zutik eta tarteka belauniko jarritz, Montserrateko Andre Mariaren aldarearen aurrean, erabakita baitzuen bere janzkiak hantxe utzi eta Kristoren armak janztea. Bada, leku horretatik abiatuta, bere asmoetan pentsatzen jarraitu zuen ohi bezala; eta Montserratera iritsita, otoitz egin eta aitorlearekin hitzartu ondoren, gehienetan idatziz egin zuen aitortza, eta aitortzak hiru egun iraun zuen; eta aitorlearekin hitzartu zuen, mandemea jaso zezaten, eta ezpata eta puñala elizan Andre Mariaren aldarean zintzilika zitzaten. Eta hori izan zen bere asmoa adierazi zion lehen gizasemea, ordura arte ez baitzion inongo aitorleri erabaki hori adierazi».

«1522ko, martxoko Andre Mariaren egunaren bezpera gauean, ahal zuen ezkutuen joan zen behartsu batengana, eta bere jantzi guztiak erantzita,

behartsuari eman zizkion, eta berak hainbeste irrikatzen zituen janziak jantzi, eta Andre Mariaren aldare aurrean erori zen belauniko; eta batzuetan horrela eta beste batzuetan zutik, bere pordoia eskuan zuela, gau osoa igaro zuen».

Har dezagun geure barnean biltzeko tarte luze bat, Montserrateko Amabirjinaren kapera aurrean eta otoitz egin diezaiozun, Korintiarren lehen gutuneko 12, 1-11 testua irakurriz, gure bizitzan Espirituaren dohainak bidelagun izan ditzagula eskatzeko, Jainkoaren aintza handienerako. Hemen alda ditzakegu gure jantzi zaharrak ere eta Igualadan aurkitu genituenak jantzi: bizi berriak janzi berriak behar baititu. Zer uzten dut hemen Montserraten? Zer eraman nahi dut etxera neurekin?

Montserrateko basilika, hondatua eta berreraikia izan da bere historiako zenbait unetan, lurraldeak jasan behar izan dituen gerren arabera. Eliza, egin-aldi bakoitzean, pixka bat atzerago, mendi alderago, joan ziren eraikitzen. Ignazioren estatuaren ondoan, lurlean idatzitako aipu gastatu batek adierazten digu hantxe eskaini zitzaiola Ignazio Amabirjinari.

Iruzkinak

Leave a Reply

Your email address will not be published. Required fields are marked *

Comment *

Name *

Email *

Website

Δ



Bizikletaz egiteko zailtasun ertainekoa

Montserratera igotzeko aldapa dezentea dago. Oinezko ibilbideari jarraituz gero, bizikletari bultza egin beharko diogu. Hobe da El Bruc-eko errepidetik igo eta Monasteriora Can Massana gainetik joatea, asfaltatutako errepideari jarraituaz.

Igualada : Km 0.

Castellolí: Km 9,5.

Sant Pau de la Guardia: Km 16.

Can Massana: Km 18,2.

Ermita Santa Cecilia: Km 23,4.


Monasterio de Montserrat: Km 27.

Bidea

Etapak eskema



Altimetria



Montserratengako eguraldian


[bidea ikustea wikiloc](#)


[gps-a deskargatzea](#)


[MapOut deskargatzea](#)

Galeria

Etapako Argazkiak

































































[aurreko etapa](#)

[hurrengo etapa](#)